

PARTAIDEZKO OROITIDAZKI EBALUATIBOA EGITEKO GIDA

Euskal Herriko Hezkuntza Ikuskaritza

OROITIDAZKI EBALUATIBOA EGITEKO GIDA

Urteko oroitidazkia eskola bakoitzeko egoera zehatzari egokituriko epe laburrerako kudeaketa tresna bat da. IUP (Ikastetxearen Urteko Plana) , AIA, IHP eta ICP- ren arabera, eskolako funtzionamendu orokorra eta halaber, irakaslegoaren ikasprozesuak eta emaitzak ebaluatzen ditu sistematikoki.

Hezkuntza erakundearen jarduera nagusiak laburbiltzen ditu, eskolako egoera une zehatz batean ezagutu ahal izateko (ikasturtearen amaieran); bide batez, baliagarria gerta daiteke alde batetik, ikastetxeko ezaguera eta funtzionamendurako eta bestetik, irakatsi eta ikasteko prozesuen hobekuntzarako.

Urteko oroitidazkia egiteak bere baitan daraman ebaluazioak honako hauek eskatzen ditu:

- 1/ Informazio bilketa: IUP (Urteko Ikastetxearen Plan) planifikaturikoaren arabera datu aipagarriak.
- 2/ Berauen interpretazioa, IUP-n aurrikusiriko irizpideen arabera, lorpen maila eta beregandik eratorritako ondorio/ eraginak.
- 3/ Erabakiak hartzea, hobekuntzarako proposamenak emanez.

Beraz, urteko oroitidazkiak informazio aipagarria eta hobekuntzarako proposamenei buruzko balioztapenak eman behar ditu: zer aldatu, zer kendu, zer gehitu..., PCC- ICPn eta PEC- IHP-n jarritako helburuei hurbil dakion. Guzti hau hurrengo urterako planifikazioaren abiapuntua izango da.

Benetako ebaluazioa, une zehatz bateko hezkuntz- errealitatea eta hobekuntzarako orientabideen balioztapenak ematean amaitzen da. Balioztapenak aurrez ezarritako irizpide batzuen arabera eta oinarritzat ahalik eta informaziorik objetiboena eta iturri askotarikoa (zenbakiak, iritziak, behaketak...) izan denean egiten dira, ondorioak eta geroko orientazioak ongi oinarrituta, zorrotzak eta fidagarriak izan daitezten

Barne ebaluazioa egitea (Oroitidazkiak horren ondorio izan behar du) ez da ikastetxean normalki egiten den zerbait. Hala eta guztiz ere, oso garrantzitsua da era honetara jokatzeko (ebaluatuz ikasten baita ebaluatzen), ikastetxearekiko duen garrantziaz jabetzeko.

HELBURUAK

1. Oroitidazkiari ikastetxeko barne ebaluazioaren maila ematea, IUP-n (urteko planifikaziorako tresna) eta gelako programazioetan oinarrituta.
2. Tresna hau dela eta, ikastetxeko ohituren artean kudeaketa elementuak sartzea: planifikazioa, garapena eta ebaluazioa tresna honen bidez.
3. Ikastetxeak urteko oroitidazkia eskolaren bilakaera ebaluatzeko beharrezkoa eta baliagarria den tresna bezala baloratzea, eta eskola- elkarte eta administrazioari ezagutaraztea.

PROPOSATZEN DEN LAN METODOLOGIA

Oroitidazkiaren partaidezko lanketak suposatzen du eskola- elkarteko kide guztiek (familiak, irakasleak, ikasleak...) beraien ordezkatzeko organuen bidez (zikloak, Zuzendaritza Taldea, PKB, OOG, APA- GE...) parte hartu behar dutela.

Sakonki hausnartu eta aztertu ondoren , jomuga bezala partaide guztiek onarturiko hobakuntzarako proposamenak lortu behar dira. Proposamen hauek, eskolan parte hartzen duten guztiak inplikatzeko dituzte eta eskolaren etengabeko hobakuntza sustatzen dute.

Oroitidazkiaren partaidezko lanketak metodologia berezia eskatzen du; gutxi gora behera honela izango litzateke:

1. PLANGINTZA:

Hauek izango dira Urteko oroitidazkia atontzeko egin beharreko lanak:

1. Ondorio bezala urteko oroitidazkia emango duen ikastetxeko eredu ebaluatibo baten lanketa.
2. Informazioaren bilketa eta trataera.
3. Balioztapenak zehaztu
4. Hurrengo urteko IUP-a lantzeko orientabide izango diren ondorioak
5. Ikasturte honetako txosten/ oroitidazki ebaluatiboaren lanketa.

Eginkizun honetan parte hartuko duten gizabanakoak/ taldeak.

- **Zuzendaritza taldea**, bere betebeharrak hauek izango dira: koordinatu, dinamizatu, IUP-aren eredu ebaluatiboa diseinatu eta Oroitidazkiaren azken lanketa egin.
- **(OOG) Eskola Kontseilua**, bere funtzionamendua ebaluatu eta Oroitidazki osoaren azterketa eta onspena egingo ditu.
- **Irakasle klustroa**, indibidualki parte hartzeaz gain (bere taldeko ebaluaketa, bere irakaskuntz- jarduera...), irakaslegoak parte hartuko du irakasle- taldeen, zikloen, etapen, departamentuen... bitartez.
- **Koordinazio Pedagogikoko Batzardea**, honek lanketan lagunduko du eta baita datu aipagarrien azterketan eta hobekuntzarako proposamenetan ere. Zuzendaritza taldeak batzardearen esku utziko balu, lanketa prozesua dinamizatze lanak ere egin beharko lituzke.
- **Ikaslegoa**. Hauek, oso informazio garrantzitsua eman dezakete eskolan, orokorrean, eta ikasgelatan, zehazki, gertatzen denari buruz beren somaketak eta balioztapenak direla medio.
- **A.P.A.- GE**. Familien iritziak ezagutzea ere lagungarria gerta daiteke errealitateari eta familiek dituzten itxarobideei loturiko erabakiak hartu behar direnean.

Oroitidazkiaren partaidezko lanketa prozesuaren dinamizazioa diseinu ebaluatiboarekin hasten da: gaia, helburuak, irizpideak, tresnak, denboralizazioa e.a. Guzti honek lan hauek eskatzen ditu:

- Urteko oroitidazkiaren edukinen eskema egitea.
- Partaideak zehaztu: Zuzendaritza taldea, Etapak/ zikloak, PKB, OOG, A.P.A.- GE, ikaslegoa (5. eta 6. mailak?)
- Partaidetza erraztuko duten tresnak sortzea. (Ikus eranskinak)
- Jarduera bakoitzarako denbora, lanketarako egutegian, zehaztu

Honek suposatzen du, bidenabar, materialak prestatzea, taldeak jakinaren gainean jartzea, emariak biltzea, zatikako sintesia egitea, adostasuna lortzea, azken dazketa egitea, Eskola Kontseiluari aurkeztea, onar dezan, eta Ikuskaritzara igortzea. .

2.LANKETA

IUP-a egiten partu hartu zuten pertsona eta talde guztiek oroitidazkiaren lanketan parte hartzea ere oso garrantzitsua da..

1. Irakasle bakoitzak bere ikasgelako oroitidazkia egiten du (ikasgelako programazioa, ICP-erako egokitzapenak, eraginak e.a. Ikasleen eskola errendimendua. CEE- ACS-ak..., zergatiak. Hobekuntzarako proposamenak.
2. Talde bakoitzak bere zikloari dagokion oroitidazkia egiten du, PKB, Eskola kontseilua, A.P.A.-GE e.a, IUP-aren planifikazioa jarraituz.
3. Laburpen bat egiten da; bertan biltzen dira emariak eta azpimarratzen dira hurrengo urteko IUP-a egiterakoan aintzat hartu beharreko iradokizunak.
4. Talde guztiei itzultzen zaie, ezagutu eta azter ditzaten.
5. Zuzendaritza taldeak edo Koordinazio Pedagogikoko Batzardeak, horrela erabakitzen bada, azken oroitidazkia egiten du, aurreko emarien sintesiarekin.
6. Eskola Kontseiluaren onspenera jartzen da.

3.AZKEN IDAZKETA

Azken oharrak jaso eta gero, jakinda iragazle guztiek ezagutzen dutela eta bere lanketan parte hartu dutela, idatzi egiten da, informazio zehatza baina aldi berean, aipagarria, laburra eta argia ematen dela ziurtatuz.

4. ONESPENA

1. OOG-ko partaideei nahiko denboraz emango zaizkie Urteko Oroitidazkiaren kopiak, hartara, irakurri, aztertu eta hobakuntzarako iradokizun orokorrak egin ditzaten.

2. Hala behar balitz edo OOG-k eskatuko balu, egin liteke oroitidazkiaren “irakurketa iruzkindu” bat. Irakurketa ez da inolaz ere onespén saioan egingo; OOG-ko partaideek hausnartzeko denbora izan behar dute onspén baina lehen.

5.ZABALKUNTZA

1. Zehaztu eta Eskola- elkarteari jakinarazten zaio beren esku dagoen Urteko oroitidazkira eskuratzeko bidea .

2. Ikuskaritzara kopia bat bidali behar da.

URTEKO OROITIDAZKI EBALUATIBOAREN EDUKINA

IUPn jarritakoa da helburua, beraz, hori erreferentzizat hartu behar da, eta puntuz puntu aztertu, lorpen maila ebaluatu, dagokien zergatiak aztertuz. Azken hauek aintzakotzat hartuz hurrengo ikasturteko proposamenak egin.

a/ Irakaslanen egitaraua.

1. 96/ 97 ikasturterako jarritako helburu orokorren lorpen maila. (IUP)
2. Maila nahiz ziklorako jarritako helburu orokorren lorpen maila ikasgelan (ikasgelaren programazioa). Irakatsi eta ikasteko prozesuaren abaluzioa: irakaskuntz- praktikak eta ikaslearen eskola- errendimendua.
3. Ikastetxearen funtzionamenduaren balorazioa alderdi hauetan:
 - 3.1. Tutoritzen banaketak
 - 3.2. Orduetegiak
 - 3.3. Erabateko edo eskusibin banaketa
 - 3.4. Ikasleentzako errefortzu eta laguntza antolamendua
 - 3.5. Taldeko organo ezberdinen kideak
 - 3.6. Lagun bakarreko karguak

b/ Ekintza osagarri eta eskolaz- kanpokoan egitaraua

Alderdi hauek balioztatuko dira, arrazoiak adieraziz eta berauek kontutan harturik, hobakuntzarako proposamenak eginez:

1. Osagarriak.
2. Eskolaz kanpokoak
3. Eskola zerbitzuak: jangela, garraioa, besteak.

c/ Kudeaketa egitaraua.

Urtean zehar egin den gastuarekiko irizpiden lehentasuna eta banaketaren balorazioa, kontutan harturik horretarako egin den aurrekontua eta alde aurretiko irizpideak.

d/ IUP-aren ebaluzioa eta ikastetxearen funtzionamendua.

IUP-n jarritako ebaluzio jarraituaren prozesuaren balorazioa.

Eranskinak

ORIENTABIDEAK

SARRERA. JUSTIFIKAZIOAK

Oroitidazki hau zentruaren egoera kurtso amaieran nolakoa den eskola elkarteak ezagut dezan eta jakinaren gainean egon dadin egiten da
Barnean har ditzake puntu hauek:

Egiten den borondatea

Eskola- elkarte osoa lotzen du, bere lanketan parte hartu duelako eta OOG-k onetsi duelako

Ikastetxearen funtzionamentuaren datu aipagarrien azterketan oinarritzen dela.

Baliagarritasuna: Ikastetxearen urteko funtzionamentua ebaluatzeko oinarritzko tresna bezala eta eskola- elkarteari eta administrazioari informazio- tresna baliagarri gerta dakiekeelako .

Bere lanketarako erabili den prozedura eta jarraikortasuna, hurrengo IUP-n hobakuntzarako hautabideen bidez

Besteak.

a/Irakaskuntza jardueren egitaraua

1. HELBURU OROKORRAK

96/ 97ikasturterako proposaturiko helburuen garapena eta lorpen maila

(IUP-n adierazitakoak)

I Eranskina

Arlo ezberdinetako helburuak ebaluatu behar dira, zehar- lerroak barne. Abiapuntu bezala, ICP-n oinarritzen den ikasgelaren programazioa hartuko da.

II Eranskina

III Eranskina

2. FUNTZIONAMENDU OROKORRAREN IKUSPEGIAK

Datutegian jasotzen diren antolaketa alderdiak ebaluatu behar dira

IV Eranskina

3. ETAPA/ ZIKLOKO LAN- PLANAK

Gainbegiratu beharko dira ea helburu orokorrak etapa/ zikloari egokitzen zaizkion eta ICP-ri ematen zaion baliagarritasuna eta balorea; halaber, ICP horretan agertzen diren funtzionamendu hitzarmenei nola egokitzen zaizkien ere: metodologia,

ebaluazio irizpideak, ziklo sustapena, aniztasunari jarritako arreta e.a.(Kontsensuatu eta ICP-n azaltzen direnak).

V Eranskina

4. TALDEKO ORGANOEN LAN PLANAK

Kurtsorako helburu orokorrak erreferentzizat hartuta, Taldeko Organo bakoitzak hauen garapen eta lorpen maila aztertuko ditu, zergatiak eta hobakuntzarako proposamenak agerian jarritz.

VI Eranskina

5. IRAKASLEGOAREN KOORDINAZIO PLANA: ZIKLOAK, TALDEAK, DEPARTAMENTUAK...

Irakaslegoaren koordinazioa ebaluatuko da: helburuak, jarduerak, arduradunak, denborak e.a., kurtsu hasieran IUP-n jarri zen bezala.

VII Eranskina

6. BERRIZTAPEN PROIEKTUAK

Ikastetxean egin diren berriztapen proiektu oro ebaluatu egin beharko da, jarraipena izan dezan edo egokitasuna behar duen erabakitzeko, beti ere, informazio aipagarria ematen duten datuek justifikaturik.

Oso garrantzitsua da bi alderdi hauek kontutan hartzea: batetik, berriztapen proiektu batek ebaluazio positiboa baldin badu, ikastetxearen ohizko jardunetan sartu behar dela; bestetik, ezezko ebaluazioa badu, arrazoiak aztertu behar direla eta proiektua birplanteatu edo erabat kentzea erabaki behar dela.

VIII Eranskina

7. IRAKASLEGOAREN ETENGABEKO PRESTAKUNTZA PLANA

Ikastetxean egiteko formakuntza eta lanorduetan ikastaroetara joateko proiektuak.

Formakuntza ikastetxean izan, nahiz ikastetxekoa, nahiz lanorduetan egin den, ebaluatu egin behar da, proiektu horietan parte hartzea erabaki zen irizpideak kontutan harturik.

IX Eranskina

X Eranskina

8. ESKOLA ELKARTEARI INFORMAZIO/ KOMUNIKAZIO PLANA

Familien partaidetza eta ikastetxeak hori sustatzeko erabili dituen bitartekoak eta estrategiak ebaluatu egin behar dira.

Partaidetza eman dadin informazioa da aurretikoa.

Ebaluatu behar da:

A/Barne komunikazioa :irakasleak eta ikasleak: Prozedurak, bideak,arduradunak e.a.

B/ Kanpo komunikazioa: familiak, Administrazioa,besteak...

XI Eranskina

b/ Ekintza Osagarrien Egitaraua

Ekintza osagarri eta eskolaz kanpokoan lotura IUP-ko helburu orokorren eta Ikastetxearen filosofiarekin (IHP edo ICP) ebaluatu egin behar da; baita ere, bere planifikazio/ programazioa eta garapena.

Eskola zerbitzuak, hots, jangela, liburutegia, garraioa, hezkuntz esparru garrantzitsuak direnez, ebaluatu egin behar dira, beraien laguntza izaeraz at.

XII Eranskina

c/ Kudeaketa egitaraua

Diruaren banaketa, gastu eta IUP-n jarri ziren irizpideekiko egokitasuna; halaber, aurrekontuarekiko doikuntza ez ezik, hobakuntzarako iradokizunak ere ebaluatu eta proposatu egin behar dira

XIII Eranskina

d/ IUP-aren ebaluazioa eta ikastetxearen funtzionamendua

Berraztertu eta baloratu behar dira ez bakarrik ikastetxearen funtzionamendua ebaluatzeko jarraitu den metodologia, arduradunak, denborak...; baita IUP- jarri ziren denborarekiko egokitasunak ere, hobakuntzarako prososamenak sor daitezten.

XIV Eranskina

IKASTETXEAREN EGUNGO EGOERAREN AZTERKUNTZA

Atal honetan irakasle, ikasle eta zegozkion eta beren erantzunkizunaren menpe zegoen esparru bakoitza ebaluatu duen talde ezberdinen (OOG, APA- GE, Zuzendaritza Taldea, PKB, Zikloak...) ekarpenen sintesia biltzen da. Abiapuntu bezala, IUP-n eta ICP-n oinarrituriko ikasgelen programazioak hartu dira.

XV Eranskina

Ikastetxea/Centro:
Herria/Localidad:
Helbidea, Tnoa/Dirección y Tno:
Lurraldea/Territorio:

URTEKO OROITIDAZKIA
MEMORIA ANUAL DEL CENTRO
Ikasturtea/Curso:

AURKIBIDEA

Sarrera. Justifikazioa.

a/ Irakaslanen egitaraua

- 1.- 96/ 97 ikasturterako jarritako helburu orokorren lorpen maila. (IUP)
- 2.- Maila nahiz ziklorako jarritako helburu orokorren lorpen maila ikasgelan.
- 3.- Ikastetxearen funtzionamenduaren balorazioa:
 - Tutoritzen banaketak
 - Ordutegiak
 - Erabateko edo eskusiben banaketa
 - Ikasleentzako errefortzu eta laguntza antolamendua
 - Taldeko organoak
 - Lagun bakarreko karguak

b/ Ekintza osagarri eta eskolaz- kanpoko egitaraua

1. Osagarriak.
2. Eskolaz kanpokoak
3. Eskola zerbitzuak: jangela, garraioa, besteak.

c/ Kudeaketa egitaraua

d/ IUP-aren ebaluazioa eta ikastetxearen funtzionamendua.

e/ Ikastetxearen azterkuntza

f/ Hobakuntzarako orientabideak. (Hauekin IUP berria hasiko da)

g/ OOG-aren onspen akta

Eranskinak

I Eranskina

.../...*ikasterako helburu orokorren lorpen maila*

Taldean balorazioa (lanketan parte hartu duen talde bakoitzak (OOG, A.P.A.- GE, zikloa/ etapa, PKB)helburuen lorpen mailaren balorazioa egingo du

TALDEA:.....

<i>Helburuak</i>	<i>Lorpen maila</i>	<i>Zein datuk justifikatzen du lorpen maila?</i>	<i>Lorpen maila justifikatzen duten zioak</i>	<i>Zio horietan oinarrituriko hobakuntzarako proposamenak</i>
<i>1</i>				
<i>2</i>				
<i>3</i>				
<i>n..</i>				

(Beharrezkoa izanez gero, gogotu helburuak: fotokopiak egin?)

Sintesia:

II ERANSKINA

Maila, ziklo, etapako helburuen lorpenen ebaluazioa

Ikaslegoaren ikaskuntza prozesuaren ebaluazioa

Emaitzei buruzko Datutegiko fitxa bete

Datuen azterketa:

Beren posibilitate eta kurtso hasiera zuten maila kontutan hartuz, emaitza egokiak (mailako helburuen lorpena) erdietsi duen ikasle kopurua %

Emaitza ezegokia dutenen kopurua %

Zergatiak:

A/Irakaskuntzari dagozkionak: helburuak, metodologia, motibazioa, errefortzua, banakako laguntza, ...(Irakaskuntz lanarekin loturik dagoen oro)

*
*
*
*

B/Ikaskuntzari dagozkionak: Posibilitateak, zailtasunak, bertaratzeak, lan ohiturak, motibazioa, arazo pertsonalak edo/ eta familia mailakoak (Ikaslegoarekin oso loturik daudenak)

*
*
*
*

Ikasleren baten CEE- ACS-ren gainbegiraketa, egongo balitz, eta bertan jarritako helburuen lorpena. Irakaskuntzaren eta ikaskuntzaren zergatiak aztertu.

Taldearen hobakuntzarako proposamenak: ikaskuntza eta irakaskuntzari buruzkoak

*
*
*
*

III ERANSKINA

Ikaslegoarentzako balorazio galdetegia

Data:.....

Zure ustez, ze gauzak joan dira ondo ikastetxean ikasturte honetan?

- 1
- 2
- 3

Ikasturte honetan egin ez duzun zer gustatuko zitzaizun egitea?

- 1
- 2
- 3

Zer gauzak hobetu beharko lirateke?

- 1
- 2
- 3

Gustura al zaude (asko, nahiko, gutxi)

Irakasleekin:

Ikaskideekin:

Ikasi duzunarekin:

Zure emaitzekin:

Gehitu nahi duzun beste zerbait:

IV ERANSKINA

IUP-n planifikaturikoa abiapuntutzat hartuta, funtzionamenduaren alderdi nagusien balorazioa

Taldea:

Data:

	Zailtasunak	Zergatiak	Hobakuntzarako proposamenak
Tutoritzen banaketa			
Ordutegiak			
Erabatekoen erabilpena			
Laguntza eta errefortzuen eraginkortasuna			
Taldeko organoen funtzionamendua			
Lagun bakarreko karguen funtzionamendua			

Oharrak:

Laburpena

V ERANSKINA

IUP-n azaltzen diren talde honentzako helburuak adierazi eta banan-banan beraien lorpena baloratu. Talde bakoitzari fitxa bat egin.

TALDEA:.....

(Etapa, zikloa eta maila)

Helburuak	Lorpen maila	Zergatiak	Hobakuntzarako proposamenak
1°			
2°			
3°			
4°			
5°			
6°			
n..			

ICP-n jarritakoarekin bat egiten zuten. maila, ziklo eta etapako erabakiak errespetatu al dira? Hala izan ez bada, zergatik?

Ikasgeletako jarduera ICP-ri doitzen al zaio?.

ICP-n sartu beharreko aldaketaren bat sumatu al da?

Laburpena:

VI ERANSKINA

IUP-n planifikaturiko talde bakoitzaren (Taldeko organoa edo talde funtzionala) lan- egitasmoaren balorazioa

Talde bakoitzak kurtso hasieran landutako lan egitasmoa berrartzen du eta bere balorazioa egiten du. Oso garrantzitsua da bere lorpen maila nola neurtzen den adierazteko irizpideak jartzea

Taldea:.....

(OOG, APA- GE, ZUZENDARITZA TALDEA, KOORDINAZIO PEDAGOGIKOKO BATZORDEA..)

Helburuak	Jarduerak	Arduraduna	Baliabideak	Denboralizazioa	Ebaluaziona
1.	1.1 1.2 1.3 1.n				

Taldearen lan aldizka eta planifikazioan aurrikusitako irizpideen arabera ebaluatu al da?

Denboralizazioa ongi egin al da?

Baliabideak, egokiak, nahikoak...izan al dira?

Arduraduna arduradun izan al da?

Proposaturiko jarduerak egin al dira?

Helburuen lorpen maila:

Justifikatzen duten datuak.

Lorpen maila hau eragin duten arrazoiak.

Hobakuntzarako proposamenak.

VII ERANSKINA*Irakaslegoaren koordinazio plan**PKB, etapa, zikloa, maila***Taldea:****Data:**

Helburuak	Lorpen maila	Zergatiak	Hobakuntzarako proposamenak
1.			
2.			
3.			
4.			
5.			
n..			

Oharrak:**Laburpena:**

VIII ERANSKINA

Berriztapen proiektuak.

Proiektu hauek baleude, beraien ebaluazioa hertsia izan beharko du eta bera garatu duen taldeak egingo du. Oroitidazkian ebaluazio honen laburpen bat egingo da, gai hauei erantzuna emanaz

- 1. Justifikatu zuten beharrei erantzuna:**
- 2. Helburuen lorpen maila.**
- 3. Jarduerak**
- 4. Baliabide materialak, funtzionalak eta giza- baliabideak**
- 5. Inplikaturako irakasleak**
- 6. Arduraduna**
- 7. Inplikaturiko ikaslearen poztasuna eta lorpenak**
- 8. Denboralizazioa**
- 9. Proiektuaren ebaluazioa**
- 10. Orokortasunerako posibilitateak/ zailtasunak**
- 11. Jarraipenerako proposamena eta hori egiteko baldintzak.**

IX ERANSKINA

Irakaslegoaren etengabeko prestakuntza planaren balorazioa

Irakasle bakoitzak erantzungo du, ziklotan amankomunean jartzen da eta azkenik PKB-n

a/ Prestakuntza plana ikastetxean

1. Izenburua:
2. Justifikatu zuten beharrei erantzuna
3. Formakuntzaren gaien egokitzapena
4. Erantzuna: partaideen bertaratzea eta inplikazioa
5. Prestakuntza saioen egutegia eta ordutegiaren balorazioa
6. Besteak:
7. Hobakuntzarako proposamenak:

X ERANSKINA

b/Kanpo Prestakuntza planaren balorazioa

Parte hartu den prestakuntza mota (zerrenda erantsi)

Zikloa:

Irakaslea	Kurtsoa	Balorazioa:			Ikastetxearekiko emaria
		Bertaratzea	Inplikazioa	Poztasuna	

- Prestakuntzaren justifikazioa ikastetxearen beharrak direla eta.
- Prestakuntza hau dela eta, zer ekarpen izan ditu ikastetxeak?
- Ikastaroetan partehartzaileen bertaratze maila, inplikazioa eta poztasuna.
- Hobakuntzarako proposamenak:

XI ERANSKINA***Eskola elkarteari informazio plana***

Barne informazio/ komunikazio planaren balorazioa

Ikaslegoa

- Zerk funtzionatu du ongi?
- Zer hobetu liteke?
- Hobakuntzarako proposamenak:

Irakaslegoa

- Zerk funtzionatu du ongi?
- Zer hobetu liteke?
- Hobakuntzarako proposamenak

B/ Kanpo informazio/ komunikazio planaren balorazioa

Familiak: (IUP eta bertan planifikaturikoaren begirunea har bedi erreferentzi puntutzat.)

1. Bilera orokorren datak
 2. Familiekin ikasgela datak
 3. Bisiten egutegia eta ordutegia
 4. Txostenen banaketa, e.a.
- Zerk funtzionatu du ongi?
 - Zer hobetu liteke?
 - Hobakuntzarako proposamenak

Administrazioa

- Zerk funtzionatu du ongi?
- Zer hobetu liteke?
- Hobakuntzarako proposamenak

Beste erakundeak. Aipatu

- Zerk funtzionatu du ongi?
- Zer hobetu liteke?
- Hobakuntzarako proposamenak

XII ERANSKINA***Ekintza osagarrien plana***

Eskolaz kanpoko ekintzen plana**Ikastetxearen beste zerbitzuak: jangela, liburutegia, garraioa,..****EKINTZA OSAGARRIAK****Zikloa:****Burutu diren ekintza osagarriak: Aipatu****Ekintzen balorazioa. (kurtso hasieran programatu direnak eta ez direnak, eskaini zaien denbora, kurtsoko helburuekiko lotura, lorpenak, denbora/ ahalegin eta emaitzen erlazioa, zailtasunak, arrazoiak, hobakuntzarako proposamenak)****ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK ETA ZERBITZUAK****EKINTZA EDO ZERBITZUA:.....**

EKINTZA	HELBU RUAK	ANTOLATZ AILEA	ARDURA DUNA	HARTZAILE AK	ORDUTEGI A. EGUNAK/ ORDUAK	TOKIA	FINANTZAK ETA

Ekintza bakoitzarako zerbitzu eta talde arduradun bakoitzak bere lanaren balorazioa egingo du, IUP-n planifikatutakoa erreferentzi puntutzat hartuta.

- **Zerk funtzionatu du ongi?**
- **Zergatik?**
- **Zer hobetu liteke?**
- **Zergatik?**
- **Hobakuntzarako proposamenak:**

XIII ERANSKINA**KUDEAKETA EGITARUA**

IUP-n planifikaturikoa baloratu puntu hauei dagokienean:

1. DIRU BALIABIDEEN BANAKETAREN IRIZPIDEAK

2. KUDEAKETA EKONOMIKOAREN ARDURADUNA/K

3. DIRU- SARBIDEAK

4. ALDEZ AURRETIK PENTSATUTAKO DIRU-SARRERAK

5. GASTUAK KONTROLATU, ERREGISTRATU ETA JUSTIFIKATZEKO BITARTEKOAK

6. JARRAIPENA: BILERA KOPURUA, DATAK, AKTAK

7.EGIN DIREN TXOSTENAK: EDUKINA, NORI EMAN ZAIO INFORMAZIOA

- **Zerk funtzionatu du ongi?**
- **Zer hobetu liteke?**
- **Hobakuntzarako proposamenak:**

XIV ERANSKINA

IUP eta ikastetxearen funtzionamenduaren ebaluazioa

	Zailtasunak	Zergatiak	Hobakuntzarako proposamenak
Aurrez pentsatutako partezko ebaluazioa burutzea			
Erabili den metodologiaren egokitasuna: datuen azterketa akordioak			
Partezko ebaluazio saioen prestaketa			
Zikloen partaidetza saio horietan			
OOG-ri informazioa			

Oharrak:

Laburpena:

XV ERANSKINA

Laburpen fitxa

1. Ebaluazioan antzemandako puntu trinkorik garrantzitsuenak

2. Hobetu litezkeen antzemandako punturik garrantzitsuenak

3. Hurrengo urtean IUP-n sartu beharreko hobakuntzarako proposamenak

XVI ERANSKINA

**OROTIDAZKI EBALUATIBOA EGITEKO ORIENTABIDE ETA TRESNEN
BALORAZIOA**

Orientabideak eta tresnak partaidezko Oroitidazki ebaluatiboa egiteko laguntzak dira.

Hezkuntz Ikuskaritzaren xedea hau izan arren, ziurtatu egin behar da benetan ikastetxerako baliagarria eta erabilgarria den.

Horregatik, irakaslegoaren beharren eskaerei hobetu eta egokitzeko, beharrezkoa da beraiek baloratu eta egokiak derizten ekarpenak egitea. Era honetara, ikastetxeen funtzionamenduaren planifikazioa eta ebaluazioa erraztea eta bizkortzea lortuko dugu denon artean

Eskerrikasko zuen ikuskariari datutegi hau beteta itzultzeagatik.

ORIENTABIDEAK.

	<i>1etik 5era baloratu</i>	<i>Oharrak</i>
<i>1.Oroitidazkiaren partaidezko lanketa sustatzen dute</i>		
<i>2.Konzeptuak argitzen dituzte</i>		
<i>3. Irakasleari jarraipideak ematen diete</i>		
<i>4. ZT-ren lana errazten dute.</i>		
<i>5.Irakaslegoaren lana errazten du</i>		

1. OSO ESKASA, 2: ESKASA, 3: NORMALA, 4: ONA, 5: OSO ONA

Orientabideetan:

Soberan dago:

Ez dago:

Egokitzapen eta hobakuntzarako aholkuak:

TRESNAK (eranskinak)

	<i>1etik 5era bitarteko balorazioa</i>	<i>Oharrak</i>
<i>1 Erabilgarriak dira</i>		
<i>2.Kontutan hartu beharreko alderdi guztiak hartzen al dituzte?</i>		
<i>3. Irakaslegoaren lana errazten al dute?</i>		
<i>4.Zuzendaritza aldearen lana errazten dute</i>		

1. 1.OSO ESKASA, 2: ESKASA, 3: NORMALA, 4: ONA, 5: OSO ONA

Tresnetan:

Soberan dago:

Ez dago:

Egokitzapen eta hobakuntzarako aholkuak